

7 CANVAS FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak funtziona dezan baditugu baliabide batzuk. Baliabide fisikoen barruan guk jarri dezakegun diru kopurua eta lokala sartzen ditugu. Baliabide intelektualetan, marketing ezagutza duen pertsona bat ezagutzen dugu eta modari buruz dakien beste bat ere bai. Finantza-baliabidetan, inbertsoreak eta diru-laguntzak bilatzen saiatuko gara.

Taldekideetako bat arropak aukeratzeaz arduratuko da. Sare sozialetan abila den taldekide bat ere badugu, bere laguntzaz, bezeroak erakarriko genituzke eta eskeintzen ditugun diseinuak zabalduko genituzte. Sare sozialak gure proiektuaren helburua eta hori aurrera eramateko egiten dugun prozesu jasangarriari buruz informazioa emateko ere erabiliko ditugu. Modari buruz dakien pertsonaren eginkizuna, bezeroen batek nahi izanez gero, arropa diseinuei buruzko aholkuak ematea ere izango litzateke. Beste taldekide bat daukagu kontabilitateaz arduratuko dena. Online hasten garenean, banatzaileak kontratatuko ditugu, arestian aipaturiko moduan esperientziarik ez dutenak. Horrela, gazteen arteko paroa murriztuz.